

Aralarko San Migel

La figura del arcángel San Miguel conoció un éxito poco común entre las devociones medievales, y ha perdurado hasta nuestros días. Italia tiene su San Miguel en el Monte Gárgano o Francia en su Mont St. Michel. En Euskal Herria, ha sido Aralar el que ha acogido su santuario por excelencia. Ha tenido un aura particular. No le han faltado leyendas, una maravilla de retablo y larga historia.

Europako Mendebalde honetan San Migel goiaingeruak arrakasta handia izan zuen Erdi Aroan, eta geroztik milaka lekutan topa daitezke San Migelen eliza, ermita eta aldareak; euskal leku- eta pertsona-izenetan sarri agertzen da gaur egun ere Migel/Mixel/Mikel izena. Euskal Herriaren defendatzailetzat ere aitortu izan da Aralarko San Migel.

Erro zaharretatik datorrena

Esan dezakegu Italiako Gargano menditik sortu zela San Migelen Mendebaldeko jaiera kristaua (492), nahiz eta ez dagoen garbi jaiera hura gurean nola eta noiz sartu edo sortu zen, Bibliako oihartzunek (Dn 10, 13. Ap 5, 11-12; 7, 11-12) eta egotzi zitzaizkion mirariek lagunduta. Baliteke Nafarroan VIII. mendean sartu izana. Aralarko San Migel *in Excelsis* ('gailurreko San Migel') elizaren lehen aztarna arkeologikoa, ostera, IX.eko dugu. Bere beranduan ere goiztarra, beraz, eta inguru jada kristautu baten emaitza gisara ikus dezakeguna.

Legenda eta historia oso elkarrekin ageri dira Aralarko San Migel santutegian. Eta ez hori bakarrik, mendeak zehar izaera ezberdinak izan ditu Aralarko elizgune honek. Erabat frogatutzat eman gabe ere, iradoki izan da mendi-tontor horretako lehen erlijiotasuna Historiaurretik eta erromatarren garaitik datorrena ez ote den, bertako trikuharri eta aldareak zituela.


Aralarren aldi kristaua IX. mendearekin hasi

zen, segur aski, eta garbiki Zamartzeko monasterioarekin loturik ageri zaigu. Zamartze hau Aralar oin-oinetan dago, Uhartre Arakilgo udalerrian, eta gaur egun ongi zainduta ageri da, zaharberrituta, bere eliza eta bilera-etxearekin. Aralarko San Migel jatorrian monasterio honekin loturik ageri zaigu, berorren bigarren elizgune bezala.

Aralarko elizaren lehen agiri-albistea 1032koa da, eta badakigu elizaren sagaratzea gotzainen bat edo bestek 1076an egin zuela. Eta ez zen izan sagaratzea bakarrik, aldi berean zituen ondasunak berretsi zitzaizkion orduan eta berriak eman, bertako apaiz eta zerbitzariak nondik bizirik izan zezaten.

1087az geroztik Zamartzerekin batera San Migel Aralarko Iruñeko gotzainaren jabetzako bezala ageri da. Garai hauetakoa izan daiteke legendako Teodosio Goñikoa, nahiz eta beronen istorioa XVII. mendeko Burgi idazlearen lumatik heldu zaigun (1774), eta historiatic ezer gutxi duten bere gertakari zehatzekin. Dena den, Teodosioren kontakizunak arrakasta izan du, eta jendeen oroimenean geratu da, idazle erromantikoez lagunduta (Navarro Villoslada). Era berean, herriak berak sortu eta eutsi dio Aralarko istorio magikoari.

Memoria horren arrakastaren ondoan, San Migel Aralarkoak ospe eta bizitza sozialak izan zituen: hainbat handikiren estimu eta atxikimendua, herritar erromes ugariarena.



Santutegiak aurpegi anitz

Esan daiteke Aralarko santutegia jarraipenik onena izan duen euskal santutegirik zaharrena dugula, hau da, aspaldi zahar batetik hona joan dira bertara inguruko herrietako erromesak, pelegrinoen topaletu hautatua izan da beti, eta egindako "mirariek" (badago *Mirarien Liburua* deritzan bat ere) eta herritarren esker onak sinesmen-mundu osoa eraiki diote Aralarri.

Hori izan da, noski, Aralarko bihotza; baina bestelako aldeak ere baditu santutegiak: mendialdeko izadi aparta, inguru zabaleko ikuskari irekia, bertan bizitza eman dutenen lekukotasuna, historiaurreak utzi dituen aztarnak, erromanikotik hasita eraikiz joan den etxadia, erretaulako artelan paregabea, etab.

Orain bereziki azpimarratu nahi dut San Migelen santutegi honek izan duen monakatu jitea: mota bateko nahiz besteko monje edo kalonjeak egon dira bertan, batzuetan bestetan baino lagun gehiago, eta aspaldidanik apaiz kapilauak.

1076az geroztik monje-komunitatea egon zen Aralarren, beneditar tradizioarekin loturiko monjeak izan zitezkeen, agian. Ziurki, XII.ean garbiki Erregela batekin arauturiko bizimodua zeramaten bertan. Nolokoa zen, ordea, Erregela hori? Badakigu 1084az geroztik Iruñeko Katedralean San Agustinenaz baliatu zirela kalonjeak, eta San Migelen elizgizonak beraien esanetara zeudenez, Erregela bera izan zuten gidari.

Aralarko kapilauen kopuruaz inoiz edo beste ezagutzen dugu zenbatekoa: Abadea zuten nagusi eta hamabost ziren monjeak 1297an, bazegoen anaia laikorik, erromesen eta guztien zerbitzuko morroiak zeuden, gainera. Santutegiari beren burua emandakoak ez ziren gutxi izan, batez ere XII. mendean, ondasun guztiak eta

beren pertsonak santutegiaren mendeko bihurtutakoak, esan nahi dut.

1205ean santutegiaren izaera juridikoa aldatu egin zen, bertako Abade izandako Joan Tarazonakoa Iruñeko Gotzain egin zutenean, zeren eta honek, San Migelgo indartzeko asmoz, Iruñeko kalonjeen buru kalonje txantrea jarri eta honen duintasuna bikaintzeko San Migelgo buru ere egin zuenean. Handik aurrera Iruñeko kalonje txantre hura izango zen Aralarko jaun eta jabe, monjeak desagertu eta kalonje haren esanetara kapilautzaz arduratuko ziren apaizak jarrita.

Esmaltez osatutako esmalte-erretaula garai modu haietakoa da, 1175aren ingurukoa, arte erromanikoaren lekukorik ederrenetakoa. Balio handiko artelan hau 1979an lapurtu zuten, eta urteak joan ziren ia osorik Aralarra itzuli zuten arte (1991).

Erdi Aro urrun hartatik hona, San Migelek egun gogoangarriak izan ditu, ospakuntzetan bezala ezbeharretan. 1229an arautu zen San Migelen kofradia, 1797an San Migelen irudia bera lapurtu zuten, eta puskatu, baina lapurrak atxilo hartu eta hiru urkamendira eraman zituzten.

XIX.eko azken urteetan erromesaldi handiak antolatu ziren Aralarra, milaka erromes tartean zela. Santutegiak ez du galdu bere sona azken garai hauetan; alderantziz, herria ez ezik hainbat jakitun eta jakin-min hurbildu da santutegira.

Bukatzeko gogora dezadan, mende-erdia eta gehiago Aralarko San Migelen kapilau izandako On Inozentzio Aierbe: 1945ean izendatu zuten horretarako eta hil arte eutsi zion egitekoari (2001).

Joseba Intxausti